1. Taulan Euskadiko E.A.-ko hiruhileko BPGaren datuak agertzen dira. Kalkula ezazu BPG errealaren hazkunde tasa eta gutxi-gora-beherako inflazio tasa. Oinarri urtea taulan al dago?

EAEko hiruhileko BPG	2021 – 3. hiruhilekoa	2021 – 4. hiruhilekoa
BPG nominala (1000 €tan)	19.049.031	20.517.434
Deflaktatzailea	105	110

(1,5 puntu)

2. Lau sektoreko ekonomia batean, honako datuetatik abiatuta: $C = 8.000$; $S = 1.000$; $I = 800$; $T_N = 3.000$; $G_C = 2.500$; $G_I = 700$, kalkula ezazu ekonomia honetako aurrezki nazionala, inbertsio totala, eta errenta nazionala. Azal ezazu kanpoko mailegua positiboa edo negatiboa den.

(1 puntu)

3. Lau sektoreko ekonomia batean:

$C = 300 + 0{,}8\ Y_D$; $I = 580$; $G = 1.400$; $Tr = 900 - 0{,}1\ Y$; $T = 1.000 + 0.3\ Y$; $X = 400$; $Q = 200 + 0{,}08\ Y$

a) Kalkulatu eskari agregatua (DA) eta oreka errenta (Y_E) . Grafikoki irudikatu.

(1,75 puntu)

b) Inportazioen hazkunde batek, $\Delta Q_0 = 60$, oreka errentan (ΔY_E) eta aurrekontu saldoan (ΔSP) daukan eragina kalkulatu. Sektore publikoak ezartzen dituen orekatzaile automatikorik ez balego, zein izango litzake errentaren aldakuntza (ΔY_E)?

(1,75 puntu)

c) Bi politika fiskal desberdin hauek analizatu:

(1) gastu publikoa handitu: $\Delta G = 120$
(2) zerga zuzenak jaitsi: $\Delta T_0 = -120$

Bakoitzak oreka errentan (ΔY_E) eta aurrekontu saldoan (ΔSP) daukan eragina kalkulatu. Lortutako emaitzen arabera, zein da eraginkorragoa? Zergatik?

(1,75 puntu)

d) Politika fiskal konbinatu baten bitartez ($\Delta G > 0$ eta $\Delta T_0 > 0$), bi helburu hauek aldi berean lortu:

(1) $\Delta Y_E = 150$
(2) $\Delta SP = 20$

(1,25 puntu)

$K_A = 1/(1 - c + ct + cb + m)$
$A = C_a + cTr_0 - cT_0 + I + G + X_0 - Q_0$

1. Ekonomia baten datu hauekin: Lm = 16.000; G = 100.000, R = 4.000.
Ondorengo eragiketa bakoitzak Banku Zentralaren balantzean dauzkan mugimenduak azaldu, eta baita moneta oinarrian (MO) eta diru kantitatean (M) daukatena ere.

   (1) Sektore Publikoak (Gobernuak) mailegu bat itzultzen dio Banku Zentralari, 150 milioikoa, bertan daukan gordailua erabiliaz.
   (2) Merkatal banku batek 200 milioi ordaintzen dizkio Sektore Publikoari (Gobernuari) Banku Zentralean daukaten gordailuko transferentzia bitartez.

(1,5 puntu)

2. Europako Banku Zentralak (EBZ) ze tresna dauzka moneta politika zabalkorra burutzeko? Aukeratu horietako bi, eta helburua nola lortzen duen azaldu.

(1 puntu)

3. Ondasun eta zerbitzuen merkatuko ekuazio hauekin: $C = 1.500 + 0.7Y_D$; $I = 1.800 - 1000i + 0.1Y$; $G = 2.000$; $T = 1.700$; eta diru merkatuko ekuazio hauekin: $(M/P)^d = 0{,}1Y - 2000i$; $(M/P)^S = 2.000$.

   a) IS eta LM funtzioak erabiliaz, kalkula itzazu oreka errenta eta interes-tasa. Grafikoki irudikatu. Zein da IS eta LM funtzioen esanahia?

   (2 puntu)

   b) Errentaren hazkunde hau lortzeko, $\Delta Y_E = 400$, zenbat handitu behar du gobernuak gastu publikoa, ΔG? Grafikoki irudikatu. Oreka berrira iristerakoan gertatzen diren aldaketak hitzez azaldu. Egozketa efekturik egon al da?

   (2 puntu)

   c) Demagun a) ataleko orekatik abiatuz, Banku Zentralak moneta politika murrizkor hau egiten duela, $\Delta(M/P)^S = -100$. Kalkula ezazu zenbat handitu behar duen gobernuak Gastu Publikoa, ΔG, oreka errenta ez aldatzeko ($\Delta Y_E = 0$). Ze eragin izango du interes-tasarengan politika konbinaketa horrek? Grafikoki irudikatu.

   (1,5 puntu)

4. Interes-tasak inbertsio eskarian eraginik ez badu (b = 0):
   a) IS-LM oreka irudikatu.
   b) Kalkulatu biderkatzaile fiskala eta diru biderkatzailea.
   c) Moneta politika zabalkor baten eragina analizatu eta grafikoki irudikatu, eta b>0 den kasuarekin daukan aldea erakutsi.

(2 puntu)

Ondasunen merkatua: $C = C_a + cY_D$; $I = I - bi + dY$; $G = G$; $T_n = T$ **IS:** $Y = \alpha A - \alpha bi$

Diru merkatua: $(M/P)^s = M/P$; $(M/P)^d = kY - hi$ LM: $i = kY/h - (M/P)/h$

$K_A = \alpha h/(k\alpha b + h)$
$K_{(M/P)} = \alpha b/(k\alpha b + h)$

$\alpha = 1/(1-c-d)$
$A = C_a - cT + I + G$